

BiHe elkartearen VIII. Jardunaldiak

**LIDERGO
PEDAGOGIKOA
ESKOLAN**

Irakasleen Unibertsitate Eskola

Donostia, 2010-03-11/12

LIDERGO PEDAGOGIKOA

Edozein ikastetxeren helburu nagusia ikasle guztiek emaitzarik hoberenak lortzea da, emaitzak modu orokorrean, ikaslearen heziketa osoa, integrala: emaitza akademiko onak eta pertsona eta hiritar gaituak.

GAUR EGUNGO ARGAZKIA

Gure ikastetxeetan, hori diote behintzat nazioarteko ikerketek (PISA, TIMSS) hainbat gabezia nabariak dira:

- Azken urte hauetan emaitza akademikoetan asko hobetu bada ere, oraindik geratzen da zer hobetua. Graduatu titulu kopurua %88 ingurukoa da. Europako Kontseiluaren helburua, batxilergoa edo maila bereko titulatu kopurua %90 izatea da; uste baita 2020an eskainiko diren lanpostuetan %10 izango dela hori baino baxuagoa duten lan-eskaintzen profila.
- Pisa eta antzeko ebaluazioetan lortzen ditugun emaitzak guztiz hobegarriak dira. Gure erronka emaitza horiek hobetzea da.
 - Emaitza nahiko onak ematen ditugu aukera berdintasunean, ekitatean; ez dago alde oso nabarmenik egoera sozioekonomikoaren arabera.
 - Askok ez dira iristen, ordea, gutxieneko mailara.
 - Askok errepikatu egiten dute.
- Irakasleen artean ezinegona nahiko handia da. Agian, gustura ari dira, baina gauzak hobetu daitezkeela sumatzen dute.
- Zuzendariok zailtasunak adierazten ditugu eguneroko kudeaketarekin.

ONDORIO BATZUK

- Hezkuntzan eskolaratzea hobetu behar dugu:
 - Eskola uztea gutxitu
 - Errepikatzeak gutxitu
- Ekitatea kalitatearekin uztartu dugu:
 - Guztientzat gutxieneko maila lortu
 - Ezagutza maila hobetu
 - Ahalmen handiagoak dituztenei aukera hobeak eskaini

HEZKUNTZA POLITIKA EMAITZAK HOBETZERA BIDERATU BEHAR DA

Aldagai gakoak ondokoak izan daitezke:

- **IKASLEA ETA IKASTETXEA**
 - Ikasle bakoitzak hezkuntza erantzunik hoberena izan dezan zaindu.
- **IRAKASKUNTZAREN KALITATEA**
 - Irakasleak hautatu, ebaluatu eta formatu
- **EBALUAZIOA ETA NEURKETA**

- Ebidentziak izan, emaitzak hobetzeko ebaluazioa
- **IKASTETXEAREN KUDEAKETA**
 - Zuzendaritza, lidergoa indartu

LIDERGOA – IKASTETXEEN ZUZENDARITZA HEZKUNTZA KALITATEA HOBETZEKO ERAGILE GISA

LIDERGOA. Zeregin multzo gisa ulertu behar da: ikas-irakats prozesua lagundu, pertsonen kudeaketa, baliabideen kudeaketa, diru-kudeaketa, gurasoekin harremanak, ebaluazioak, kudeaketa sistemak,... MARAGALL, Ernest: *los institutos son las entidades más difíciles de gestionar. Docentes que trabajan con personas en una edad muy compleja.* Pertsona bakarrak ezin dezake egin; beraz, talde-lan gisa hartu behar da. Hiru esparrutan izan behar du eragina:

- **Ikastetxean.** Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren hobekuntzan, eta ondorioz, emaitzen hobekuntzan, zeregin garrantzitsua du lidergoak: ongi funtzionatzeko giro eta antolakuntza egokia sortu behar du, irakasleek ongi irakats dezaten saiatu behar du, ikasleek egoerarik hoberenean ikas dezaten lortu behar du.
- **Inguruan.** Emaitzen hobekuntzan lagun dezake inguruko ikastetxeekin eta inguruarekin kolaboratuz.
- **Hezkuntza Sistematan.** Erreformen arrakastan bere zeregina oso garrantzitsua da, ezinbestekoa. Ez badugu lortzen zuzendari ongi formatuak eta laguntza onekin nekez emango da hezkuntza politika eraginkorra.

ZUZENDARIEN POTENTZIALA

OCDE eta beste hainbat erakunderen ikerketek diotenez, zuzendariak potentzial handia izan dezakeen talde txikia dira.

Halere, gure erkidegoan, zailtasun handiak daude zuzendariak aurkitzeko; gainera, gehienak adinean aurrera xamar goazenak gara. Pizgarri sistema guztiz ahula, errekonozimendu eskasa,...

ERRONKAK

Eskola lidergoa: nazioarte mailan lehentasun politikoa duen gaitzat hartzen ari da. Azken urte hauetan, esparru guztietan eta ez soilik hezkuntzarenean, deszentralizazio nabaria gertatzen ari da, autonomia handiagoa eskainiz ikastetxeei eta egoera honek, ondorioz, gaitasun handiagoak eskatzen dizkie zuzendaritzei.

- Eskola lidergoaren garrantzia azpimarratzen da. Eskola lidergoak ikaskuntza-irakaskuntza hobetzen lagun dezake. Irakaslearen ondoren aldagairik garrantzitsuena da.
 - Zuzendaritzaren eginkizunik nagusiena eskolen eta ikasleen emaitzen hobekuntzara bideratu bideratu behar da.
 - Egungo zuzendaritza hobetu eta etorkizuneko ziurtatu behar da.
 - Zuzendarien erreleboa planifikatu behar da.

- Eskola lidergo konpartitua onartu eta bultzatu behar da.
- Gaur egungo zailtasunen zergatia ondokoa da:
 - Eginkizun eta ardura berrien onarpen eza.
 - Formazioaren ahultasuna.
 - Zuzendari eginkizunaren ebaluazio eza eta laguntza eza.
 - Pizgarriek ez dituzte islatzen ardura gehigarriak beste irakasleekin alderatuta.

PROPOSAMENA

Epe ertainera eta etorkizunera ikuspena (bisioa) eta irudipena (ilusioa) duten ikastetxeak sortu behar ditugu.

Lana ondo egiten duten ikastetxetatik ikasi behar dugu (sarean lana). Denok daukagu zer ikasi eta zer irakatsi.

Testuinguru honetan zuzendaritza taldeen zeregina garrantzitsua da emaitzak eta hezkuntza xedeak hobetzeko, ebaluazio eta ikerketek dioten bezala.

BIHE Elkarteak, **zuzendaritza eginkizunaren profesionalizazioa** honela ulertzen du:

- **Eskola lidergoaren ardurak birdefinitu egin beharko lirateke.**
 - Autonomia handiagoa, baina laguntza handiagoarekin.
 - Ardurak ongi zehaztuak eta ikaskuntzara bideratuak: irakaslea lagundu, ebaluatu, irakaslearen garapena lortu.
 - Ikastetxearen helburuak zehaztu, ebaluazioa eta kontu-zuritzea.
 - Beste eskola batzuekin kolaboratzea, sareak sortuz, sistemaren hobekuntza lortzeko.
- **Ardura banaketa argia zuzendaritza taldearen baitan.**
 - Gaur egungo erronkei erantzun ahal izateko ardurak banatu: IKTak, Elkarbizitza, pertsonen kudeaketa, Eleaniztasuna,...
 - Formazio eta pizgarriak zuzendaritza talde osoarentzat.
- **Formazio eraginkorra:** hasierako eta etengabea. “Mentoring” eta praktikatik hurbileko formazio jarduerak antolatu.
- **Eskola lidergoa profesio erakargarria bilakatu.**
 - Pizgarrien hobekuntza nabarmena.
 - Laguntza eta ebaluazioa.
 - Garapen profesionala: karrera dozentea.
 - Zuzendarien erreleboa planifikatu.

Norberarengan nola besteengan ustea duten liderrak behar ditugu. Barne energia dutenak, energia hau ondo kudeatzen dutenak eta indar horrek ingurukoak erakartzeko eta ilusio horrekin “kutsatzeko” lidergo emozionala dutenak.

Gizarte berri baten aurrean gaude, jada hemen dugu eta etengabe aldatzen ari da. Hezkuntza erantzun eraginkorra eskatzen digu.